



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-03-10

BILERA ZENBAKIA: 18

ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean 19,00tan


PARTEHARTZAILEAK: 5 emakume

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. **TIPI TAPA:** Inguruko herri handietan egiten den bezela, Itsasondon ibilaldi laburrak egiteko asmoa dago. Horretarako, jubilatuei elkartearen Ordizikoekin eta herriko medikuarekin harremanetan jarri da, ekintza hau osasunaren ildotik ikusi dadin. Asmoa da jubilatuei taldeak ibilaldi hauek taldean egin ditzan, eta aldi berean, bere kaxa ezin duenari laguntza eskeinitzeko dio bertan parte hartu dezan. Ibilaldiak hasera batean ez dira luzeak izango (Ordizi, Arama, Legorreta...). Era honetan, pixkanaka boluntario sarea jorrazteko asmoa dago, beste ekintza batzuetan lagundu dezaten. Urrengo bilerara, jubilatuei elkarteko bi kide gonbidatuko ditugu gai hau lotu eta adosteko.
2. **HAZKUNTZA TALDEA (crianza):** Ikusirik Itsasondon haur jaio berri dexte daudela momentu honetan eta emakume haurdunak ere bai, taldean planteatu da guraso berri haurtzat, esperientziak konpartitzeko gune bat eskeintzea, non hazkuntza lanean zalantzak sortzen direnean aholkua jaso ahal izango duten. Horretarako, lantaldeko kide bat prest legoke dohain aholkularitza hau emateko eta taldea dinamizatu eta kudeatzeko. Ekintza hau kokatzeko «haurren herria» eta bertan parte hartzen duten eragileekin adostea erabaki da.
3. **PARTEHARTZEA:** Goierri mailan partehartze prozesu bat ireki nahi da, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamena aprobetxatuz. Bertan, diru kopuru bat dago eskuragarri eta herriak diru hori zertan gastatu nahi duen erabakitzea nahi du Aldundiak. Horretarako galdeketa bat pasako da herritarrei eta ekintza zehatzak proposatu beharko dira, beti ere Gohierri mailan onura ekarriko dutenak. Udalak lan talde desberdinetan planteatuko du eta proposamenak jasoko dira. Herri guztiarekin parte hartzea prozesua Apirilak 29an, 19:00tan udaletxean egingo da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Urrengo bilerara jubilatuei gonbidapena luzatu	Apirila	Erkuden
Hazkuntza taldearen kudeaketa nola bideratu	Apirila	Maiden



Partehartze prozedurako proposamenak egin	Apirila	Denok
---	---------	-------

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Apirilaren 21ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Bendoraren bankua programa bideratzen hasi.
- Tipi tapa programaren nondik norakoak finkatu.
- Hazkuntza taldearen gaia lotu.
- Partehartze prozedurako proposamenak bildu eta bideratu.
- Besterik... Baketik proposamena, indarkeri matxistaren aurkako protokoloa...